

# BAROJA

– ARABA / ÁLAVA –

Baroja herria Arabako hiriburutik 24 km-ra dago, hegoaldean. Gasteiztik bertaratzeko, Aretxabale-tarantz daraman A-2124 tokiko errepidea hartu behar da, Iturritxu auzoan. Errepide horrek, Trebiñoko Konderrian sartzean, B-750 izena hartzen du. Handik 20 bat kilometrora, Moraza herritik hurbil, Baroja dioen seinalea aurkituko dugu, herri-iristeko 2 km inguru geratzen direla.

Donemiliaga Kukulako monasterioko nominan, *Barolba* izenaz aipatzen da, eta izen horrekin egin zuen bere ekarpena, golde-burdina bat, Rivo de Ivita eskualdearen barruan. Geroago, 1227an, Jeronimo Aznar gotzainak *Varoia* izenaz jaso zuen, herrien zerrendan. Arabako herrixka hori Urizaharra hiribilduaren baitan egon zen, eta horrekin batera ere, Gatzagako Konde titulua zuten Sarmientotarren leinupean, Híjarko dukeen eskuetara igaro baino lehen. Datuok *Gasteizko Elizbarrutiko Monumentuen Katalogoan* azaltzen dira. Gaur, herria Urizaharra udalerriaren barruan dago, Kanpezu-Arabako Mendialdeko koadrilaren baitan.

La localidad de Baroja se encuentra situada 24 km al sur de la capital alavesa. Para acceder a ella desde Vitoria-Gasteiz, se sale hacia Aretxabaleta, por el barrio de Iturritxu, tomando la carretera local A-2124, que al entrar en el Condado de Treviño se convierte en B-750. A unos 20 km, cerca de la localidad de Moraza, se sigue la indicación de Baroja, que se halla a unos 2 km.

Baroja es citada en la nómina del monasterio de San Millán de la Cogolla con el nombre de *Barolba*, y como tal contribuye aportando una reja dentro de la comarca Rivo de Ivita. Con posterioridad, en 1227, el obispo don Jerónimo Aznar la cita en la relación de pueblos como *Varoia*. Esta aldea alavesa perteneció a la villa de Peñacerrada y, junto a ella, al linaje de los Sarmiento, Condes de Salinas, pasando después, a los Duques de Híjar. Son datos que nos aporta el *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria*. En la actualidad pertenece al municipio de Peñacerrada-Urizaharra y forma parte de la cuadrilla de Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezuko-Arabako Mendialdea.



Herriaren  
ikuspegi orokorra

Vista general  
del pueblo

## San Martin eliza / Iglesia de San Martín

**B**AROJAKO ELIZA San Martinen izenpean dago. Herriaren erdigunean dago, parrokiaren eremua osatzen duen etxe-sortak inguratuz. Eraikineren osagai arkitektoniko gehienak XVI. mendekoak dira. Oraingo portadaren gainean dagoen erdi-puntuko arku itsua osatzen duten baketoidun arkiboltak –apaingarririk gabekoak– Erdi Aroko fatxada zaharrarenak dira, ziurrenik. Hormetan, txertaturiko elementuak ikus daitezke, bai eta eraikinean egindako zabalkuntzen eta eraldaketen berri ematen diguten hainbat kalitateko materialak ere. Iparraldeko horman irekitako kaperaren kanpoaldean, erlaitzaren azpian, eguzkia eta ilargia behe-erliebean eta oso eskematiko irudikatuz dituen apaingarri biribil bitxi bat dago.

Barojako San Martin elizaren barruan, tenpluaren ondoan, korupean, bataiarri erromaniko bat dago. Esferaerdi-formako ontzia bat da, lisoa, goian, kanpoaldetik, akabera alakatua duena. Oin zilindrikoak moldura oxkarratu bat du, goiko aldean, eta multzo osoari eusten dion harroin karratuaren ertzetaraino heltzen diren lau nerbio, luzetara. Harroinaren angeluetako bitan buru bana hauteman daitezke: bata gizaki batena da, eta besteak lehoi batena dirudi. Baliteke Arluzeako San Martin elizako bataiarriko

**L**A IGLESIA DE BAROJA se encuentra bajo la advocación de San Martín y está situada en el centro del pueblo, rodeada del caserío que conforma la feligresía. Los elementos arquitectónicos que componen el edificio corresponden en su mayor parte al siglo XVI. Sobre la portada actual se conserva un arco de medio punto cegado, formado por arquivoltas baquetonadas y carentes de ornamentación, pertenecientes, posiblemente, a la antigua portada medieval. En los muros se pueden apreciar elementos incrustados, y la utilización de materiales de diferentes calidades que nos hablan de las ampliaciones e intervenciones llevadas a cabo en el edificio. En el exterior de la capilla abierta en el muro norte, bajo la cornisa, se encuentra situado un tondo muy original, donde aparecen representados en bajorrelieve y de forma muy esquemática, el sol y la luna.

En el interior de la iglesia de San Martín, de Baroja, a los pies del templo, bajo el coro, se conserva una pila bautismal románica. Está compuesta por una copa semiesférica, lisa, rematada la boca en bisel por su parte externa. El pie, cilíndrico, muestra una moldura festoneada en la parte superior y cuatro nervios longitudinales, coincidiendo con las esquinas de la basa cuadrada, sobre la que descansa el

Eguzkiaren eta ilargiaren erliebea / Relieve del sol y la luna



Bataiarria / Pila bautismal





harroinean ere irudikaturik dagoen eta egoera hobean iraun duen Tetramorfos edo Lau Bizidunen gaiaren isla izatea.

Testua eta argazkiak: RHA

conjunto. En dos de los ángulos de la basa aún se puede apreciar la representación de dos cabezas: una representa un ser humano y la otra podría ser de un león. Tal vez se trate del tema del Tetramorfos, o de los Cuatro Vivientes, también representado, y allí mejor conservado, en la basa de la pila bautismal de la iglesia de San Martín, en Arluzea.

Texto y fotos: RHA

### *Bibliografía / Bibliografía*

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 112; LABORDA YNEVA, J., 2003, pp. 134-139; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 364; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1968, pp. 81-82.